

BERTSOAK:**Zorionak, KARMEL**

Karmel aldizkariak bere bizi-iraupenean, egoera gogor askorekin egin izan du topo; hala ere eta zorionez, beti lortu du bere burua gizartean birkokatzea.

Bere ibilbide luzean aro desberdinak bereiz ditzakegu eta aro bakoitza bere zuzendaritza edo eragile emankorrez osatua. Eragile historiko, ospetsu bezain garrantzitsuak izateko zoria bizi izan du. Aro aldaketak zuzendaritza aldaketa eta izen aldaketa ekarri dizkio *Karmeli*.

KARMENGO ARGIA, KARMEL, Lino Akesolo eta Santi Onaindiaren zuzendaritzapean gerra aurretik hasita. Debekatua ere sarritan egona da.

OLERTI Santi Onaindiak sortua da, *Karmel* aldizkariaren osagarri gisa, bereziki olerkarien txokoa izateko.

Azken aroan edo aro berrian ere KARMEL izaten jarraitzen du.

JULEN URKIZA da aro berriko zuzendaria eta Luis Baraiazarra, Ana Urkiza, Patxi Uribarren, Andoni Olea eta Luis Arostegi Idazle kontseilukoak.

Aro berri honetan zilarrezko ezteietara heldu da, hogeita bost urte. Bada aldizkaria zoriontzeko nahiko motibo eta berarekin batera, bertan idazten duten guztiak. Euskal Herriko idazlerik ospetsuenak maiztasun handiz jarraitzen dute bertan artikulua argitaratzen.

Zoriontzeko aukera bertso bidez egitea pentsatu dut.

KARMEL aldizkaria
maite dugu zinez,
gizarteko gaiei
helduaz adorez
zuzendaritza ona
idazle bikainez,
lau zenbaki urtean
denek dakitenez.

Onaindiak lehenbizi
indartu arbola
Urkizak berriztatu
berari odola
zilarrezko ezteiak
betetuaz hola
Karmel kontseilu finak
lanaren kontrola.

Bizitzako bidea
bere dimentsio
idazlerik onenak
Karmelen sozio.
Artikulu ugari
hainbat espresio
ezteiak ospatzeko
bada nahiko zio.

Aurkibide zabala
hamaika aipamen
idazlan desberdinak
orain bezala lehen
kultura, gizartea
ez da ezer eten
aurrekoak oroituz
ozen ta nabarmen.

Markinan karmeldarrak
lanerako grina,
uzta ederragatik
Karmeli domina
Karmel sorta ederrak
prosa zein errima
irudien bilduma
harritzeko adina

Pilare Baraiazarra Txertudi